



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Unibertsitate eta
Ikerketa Sailordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de
Universidades e Investigación

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 13koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzak esleitzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko uztailaren 24ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueretarako laguntzak emateko deialdia egin zen (uztailaren 27ko EHAA).

Agindu horren 11. artikulua ebaluatzeko irizpideak eta prozedura ezarri ditu. 11.2 puntuak dio ebaluazioa egiteko, aditu ebaluatzaileen taldeak sortuko direla eskabideak sailkatzen diren eremuetarako. Honako hauek dira eremuak: (a) saiakuntza-zientzietakoa, (b) teknika-zientzietakoa, (c) medikuntza-zientzietakoa, (d) ekonomia- eta enpresa-zientzietakoa, (e) gizarte- eta zuzenbide-zientzietakoa eta (f) giza zientzietakoa. Ebaluatzaile-talde horiek kanpoko adituek eta EAEko unibertsitate-sistematik kanpoko adituek osatuko zituzten eta eurek egingo dute taldeen proposamenen zientzia- eta teknika-kalitatearen ebaluazioa.

2012ko urriaren 17ko Aginduz (urriaren 31ko EHAA) izendatu zituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2012ko uztailaren 11ko Aginduko 11. artikuluan aurreikusitako aditu ebaluatzaileen taldeetako kideak.

Adituek deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak jarraitu zituzten eskabideen ebaluazioa egitean. Adituen taldeen koordinatzaileek, Bilbon 2012ko azaroaren 26an eta 28an bilduta, eskabide guztietarako puntuatzeko proposamen bakar bat eta ebaluatzeko txosten bakar bat aurkeztu zizkioten Hautaketa Batzordeari.

Hautaketa Batzordeak, deialdiari buruzko aginduaren 12. artikuluan adierazitakoa betez, deialdiaren irizpideak zuzen aplikatu dituztela aztertu du, eta homogeneizatu egin du arloko aditu ebaluatzaileek egindako interpretazioa. Gainera, eskabidean behar bezala agertutako beharren eta adituen taldeen gomendioen arabera, kasu bakoitzean onartutako aurrekontua zehaztu du, 6. artikuluan ezarritako kontzeptuak kontuan hartuta.

Hautaketa Batzordeak ebazpen-proposamena idatzi du. Ebazpen horretan zehaztu du zein talde diren A motakoak (sei urte) eta zein B motakoak (hiru urte), eta zer diru-laguntza dagokion talde bakoitzari, urteka eta kontzeptuka zehaztuta. Behar izanez gero,



zehaztu du, baita ere, zer talderi ukatu zaien eskaria, eta zergatik.

Aginduaren 14. artikulua dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak, Hautaketa Batzordeak proposatuta, laguntzak ebazpen bidez emango dituela. Ebazpen horrek, erakunde onuradunei atxikitako ikerketa-talde bakoitzarentzat, hauexek zehaztuko ditu: talde eskatzailea zein den, ebaluazioaren emaitza (ukatzea edo A edo B motako talde gisa onartzea, guztira esleitutako zenbatekoa eta kontzeptuen eta urtekoen araberrako xehetasuna.

Artikulu horrek dio ebazpena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren webgunean argitaratuko dela deialdia argitaratu eta sei hilabeteko epean. Ebazpena ediktu bidez ere argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren ohar-taula elektronikoan.

Jende guztiak jakin dezan, laguntzei buruz ebazten dena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, 2013ko lehenengo seihilekoan.

Ondorioz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko uztailaren 24ko Aginduaren babesean (uztailaren 27ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jardueretarako laguntza hauek ematea:

- I. eranskina. A motako egiaztatutako taldeak.
- II. eranskina. B motako egiaztatutako taldeak.
- III. eranskina. A taldeak. Esleitutako zenbatekoa guztira, kontzeptuen araberrako xehetasuna eta laguntzaren denborazko banakapena.
- IV. eranskina. B taldeak. Esleitutako zenbatekoa guztira, kontzeptuen araberrako xehetasuna eta laguntzaren denborazko banakapena.

Bigarrena.- V. eranskinean adierazitakoak ukatzea.

Hirugarrena.- 2013ari dagokion laguntzaren zenbatekoa bi ordainketa-aginduren bidez gauzatu zaien onuradunei: lehenengoa, zenbateko osoaren % 50ekoa, aginduaren 15. artikuluan zehaztutako onarpen-prozedura betetakoan. Bigarrena, gainerako % 50a, 2014an, 16.1 artikuluan jasotako jarduera-planaren jarraipen ekonomikoari buruzko txostena ebaluatu ondoren. Ondorengo urteetan ordainketa bi alditan egingo da. Lehenengoa, uneko urteari dagokion zenbatekoaren % 50, aurreko urteko bigarren ordainketarekin batera ordainduko da,



eta gainerako % 50a, aurreko paragrafoan aipatu bezala, Zientzia Politikako Zuzendaritzak ebaluazio-txostena egiten duenean.

Laugarrena.- Urtero, erakunde onuradunak jarduera-planaren jarraipen ekonomikoari buruzko txosten partzial bat aurkeztuko du, eta Zientzia Politikako Zuzendaritzara hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen bidaliko. Txosten hori erakunde onuradunaren kudeatzailearen edo kontabilitate-zerbitzuburuaren ziurtagiria izango da, ziurtatuko duena emandako laguntzarekin egin den gastua atalka, eta bakoitzaren zenbatekoa jarrita. Erakunde onuradunak, hirugarren urteko, hau da, 2015eko urteko txosten ekonomikoa ez ezik, 3013-2015 aldirako gastuen ziurtagiria ere aurkeztuko du, B motako ikertaldeentzat. Erakunde onuradunak, seigarren urteko, hau da, 2018ko urteko txosten ekonomikoa ez ezik, 3013-2018 aldirako gastuen ziurtagiria ere aurkeztuko du, A motako ikertaldeentzat.

Bosgarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, webgunean (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>) argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko martxoaren 13an

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ
Unibertsitate eta Ikerkuntzako sailburuordea

Iñaki Añel